



EZRA FURMAN

Rockaren azpigeneroak melodia bihurtuz

Larunbatean: Zarauzko Modelo aretoan (22:00)

Kritika ezin hobek jasotzen ari da *Perpetual Motion People* (2015), Ezra Furman musikariak (Chicago, AEB, 1986)

bakarka kaleraturiko hirugarren lana. Furmanek jauzi egiten du folketik garagera, adibidez, eta berriro buelta. Ahots sudurkari-ko egileak rockaren azpigeneroekin elikatu ditu azkeneko disko-ko hamahiru abestiak, eta melodiak sortzeko daukan trebezia erakutsi du berriro.

Erresuma Batuan, adibidez, izar bat da jada, eta ematen dituen kontzertuetako sarrerak azkar asko amaitzen dira. Izan ere, biaki, are surrealistak izan ohi dira haren emanaldiak: kaosak zipiritzintutakoak, finean. Bere bizitza daukate oinarrian kantatzen dituen hitzek, eta depresioa, bisexualitatea eta erlijioa ditu hizpide, esaterako. Bakarkako ibilbideari ekin aurretik, hiru disko argitaratu zituen Ezra Furman and the Harpoons taldearekin.



BI AHOTSETARA
Anton Iturbe

Albini

Gasteiz. Mugako festibala. Radithor bilbotar Djak Mikel Laboaren ahotsa sartu du loop eta beat elektronikoaren artean, bere saioan. Elektrizitate estatikoko zurrunbiloak musikaren izaera espektrala indartu egiten duela iruditu zait. Inoiz baino hipnotikoago bilakatu. Zaila izango zait testuinguruak erabat baldintzatutako une hau inoiz ahaztea.

Testuingururik eza da gaurko musika munduan batzuek salatzaren duten gaizta. Fitxategi digitala eta azaleko iruditxo txiki bat

bihurtuta, diskoak ziberespazioaren ozeanoan galdu egiten direla diote. Garai bateko LP eta CD-ek zituzten liburuxka eta testuinguru espazio-temporalik gabe, gaurko diskoak une baterako entretengarri hutsalak bihurtu omen dira. Musika serio-aren gainbehera dakusate aditu askok. (Craig Havighursten artikululu batean irakurri dudana lez). Neurri bateraino ulergarria zait, eta, disko fisiko erosle amorratua naizen arren, ez nator bat iritzi horrekin.

Steve Albini musikari eta disko ekoizle beteranoaren jarrera baikorra askoz gustukoagoa dut. Barnetik bizi izan zuen Albini 90eko hamarkadako musika industria, eta bere hitzaldietan garbi azaltzen du eredu hark korporezko handien diru egarria zein ederki asetzen zuen, eta artisten-gazteak ezartzen zuen murrizketak zein itogarria izan zitekeen.

53 urterekin, Albini inoiz baino erosoago sentitzen da bere musika ezagutarazi eta testuinguru berrietan nahastu ahal izateko Internetek ematen dion ahalmenarekin. Are gehiago, Powell musikari elektronikoak Shellacen doinu bat bere musikan txertatzeko baimena eskatu zionean, techno musika makinala gorrotatzen zuen arren bere musika nahi zuen moduen erabiltzeko esan zion. Powellek doinu bikain bat ateratu berri du baimen horri esker, Albini inoiz entzungo ez badu ere.

Dana ez da perfektua, baina nahasketarako ahalmena eta mugarik eza musikari eta entzuleen onurak dela uste dut orokorrean. Mugako festibalaren matreak elektronikoaz gozatu ondoren, kotxean NI-eko bakar-dade ilumean, Anariren *Aurrekari penaltza* inoiz baino ederragoak iruditu zitzaizkidan, egia esan.



HAN.

Han
'Han'

Diskoetxea: Bonberenea Ekintzak.

Julen Azpitarte

El orriko Han bandak lehen diskoa plazaratu du. Halere, taldekideen artean ibilbide luze-ko musikariak daude: Ama Say eta Yakuzin aritutako Gorka, bai

eta Lisaboren teknikari izandako Karlos ere. AEBetako 1980ko eta 1990eko indie-rocketik edaten duten bederatzidoinu sendo biltzen ditu grabazioak. Hala, lehenengo entzunaldiarekin batera, Husker Du bandaren trazak nabarmentzen dira, batez ere. *Igeri egiten* abestia. Pixiesen oihartzunak ere entzuten dira, esaterako, *Mugitzen* abestia. Hala, gitarra zikin eta melodikoak egoki nahastzen dira Nerearen aho-tsarekin, oinarri erritmikoak irromotasuna transmititzen duen bitartean. Apuntatu ezazue Durangoko Azokako erosketen artean, aurtengo disko-uzta oparora izango baita.

Txillardegia rock doinuez

Hintza Orbeago

Xabi Strubell izena irakurtzean jende askori Dut taldea etorriko zaio gogora, duela hamarkada pare bat euren post-hardcore doinuekin Euskal Herriko musikaren egoerara aire berritzaileak ekarri zuena, eta gaur egungo talde asko eta askorentzat erreferente bilakatu zena. Baina badira jada hamar urte hirukote hartako liderrak Zura taldea sortu zuela, euskal musikaren euren lekua eta jarraitzaileak eskuratuz. Orain disko berriaz datoz, ibilbideko hirugarrena.

Egunkari ezkutua izenburupean argitaratutako lana II abestiz osatuta dago, eta aurreko *Kiribil* diskoiko bossa nova erritmoak alde batera utziz, hemen rock doinuak dira nagusi. Horren barruan, hala ere, askotariko aldeak aurki daitezke, *Hipotesi txalogarriena*-ko pop-rock dantzagarria ia ukitzera inoiz helzen diren melodia poperogoeatetik, *Negar txila*-ko gitarra astunetara.

Diskoa, gainera, literaturarekin zuzenean lotuta dator, hitz guztiak Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegia*-ren *Leturiaren*

egunkari ezkutua liburuan baitaude inspiratuta –ez dira liburuko pasarteak, hartan oinarrituz Strubellek asmatutakoak baizik–, eta eleberraren forma-tua mantendu dute, lau urtaroen segida errespetatuz, eta bakoitzari bi edo hiru abesti dedikatuz. Musika ez ezik hitz ere aztertzea gustatzen zaionari komeni zaio, beraz, liburua (berriz) irakurtzea, askoz hobeto ulertzen baita

1957an Txillardegik idatzitakoa, Hark zioen «zeru lurraeren handia eta ederra dastatu» «badirudimundu zoragarri bateko sarean gaudela» modukoekin kritiko azalduz, edo lehen aipatu *Hipotesi txalogarriena* «iluna da poesia, alaja ez da poesigarri (...) zoriotsu zan, etzun idatzi aro artan» bezalako esaldiekin, egunkariaren zoriotsu zenekoan «ezin idatzi, ezin loak hartu, ezin ezer» horri erreferentzia eginez.

Abestiek, oro har, liburuaeren esentzia transmititzen dute gainera, eta hasierakoetan melodia entzunerrazak ageri zaizkigu. Baina aurrera egin ahala, gitarra piztuta horiek, doinu geldo eta progresiboak, erritmo aldaketa bortitzak –*Ta heriotza* edota *Landareak* kasu– eta distortsio gehixeago nabaritzen dira, bai gitartetan eta baita, nonbait, aho-tsetan ere. Mikrofonoan ez da bakarririk aritu Strubell, diskoan zehar hainbat kantutan entzun baitazez Willis Drummond taldearekin ezagun egin eta bakarkako lehen lana ateratzeaz dagoen Jurgi Ekiza, baten ahots latza eta bestearren melodia ezin hobeki uztaiz.

«Dut-eko abeslariaren gaur egungo taldea» izatearen karga gainetik kentzeko moduko lanaren aurrean gaude –bada ordua gainera–, kalitateko lana baita, erabatekoa. Nire diskografian, behintza, t egun batetik bestera ezinbesteko bihurtu da, ze, sinetsiezadazue, entzuten hasteaz bat, guztiz engantxatzen zaitu.



Zura
'Egunkari ezkutua'

Diskoetxea: Oihuka.



Larregi
'Pantomima'

Diskoetxea: Baga Biga.

Inaxio Esnaola Aranzadi

Banden Lehia txapelketa irabazi ondoren, bi sari nagusi eskuratu zituen Larregi taldeak. Banku izena duen Bilboko festibalean kontzertua eskaini zuten, eta, orain, *Pantomima* diskoa plazaratu dute. Mozorroak eran-

tzi dituzte bigarren lanean, baina beste batzuk janzteko. Proposamena gozotu eta erraztu dute, Kaliforniako punk melodikoarekin eta pop-rock estandarrekin bat eginez. Errepika simple bezain eraginkorra dute *Zuloan*, *Ostruka* eta *Gezurra ari du* kantuek. Biffy Clyro eskoziarren 57 abestia euskaratu eta moldatzeko arriskua hartu dute, eta kostatzen da jatorrizkoa identifikatzea. Diskoaren erditik aurrera elementu berriak gehitu dituzte: biolontxeloa zein pianoa, sintetizadoreak eta alboka. *Toxikoa* biakiak ekoizpe-nak zeharo indargabetzen duen rock oinarria azaleratzen du. Laukoteak izaera melodikoagoa nahiago du, iraganean utzitako indarra galduta.